

## GEOGRAFIA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Oskia Ramírez Baraze, Ilargi Olaiz Soto	Maila	DBH 3	Ikasturtea	2021/2022
-----------	--	-------	-------	------------	-----------

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Hirugarren ikasturtean lurraldea aztertzen da, bere alderdi eta espazio-eremu desberdinei erreparatuz. Jarduera ekonomikoaren ikerketatik eta horiek espazioan eta paisaian sortzen duten egituratik abiatuta, munduko, eremu geopolitiko eta ekonomiko handien antolaketa politikoa eta jarduera ekonomikoak aztertzen dira, baita herrien arteko mendekotasuna duen mundu baten eraldaketak eta arazoak ere, giza garapenean gertatzen diren ezberdintasunei aipamen berezia eginez. Institutuak markaturiko ildo pedagogiko berritzaileari jarraituz, zenbait proiektu garatuko dira, hala nola, Iturrama migratzaileekin proiektua. Mintegiaren erabakiz, DBH 2.mailako giza geografiaren eduki blokearen parte handiena 3.mailan landuko da eta 3.mailako Aro Modernoaren blokea, bigarren mailan. Eta era berean, 4.mailako eduki bloke batzuk ere, (zehazki, globalizazioarekin eta inperialismoaren eraginekin loturikoak) 3. mailan landuko dira.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira. Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da. Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da. Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da. Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du ezberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu. Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

### OINARRIZKO GAITASUNAK

### UNITATEAK

	1	2	3	4	5	6	7	8		
1) Hizkuntza komunikazioa.	x	x	x	x	x	x	x	x		
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak.	x		x	x	x	x				
3) Gaitasun digitala.	x	x	x	x	x	x	x	x		
4) Ikasten ikastea	x	x	x	x	x	x	x	x		
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	x	x	x	x	x	x	x	x		
6) Ekimena eta ekintzaitza.	x	x	x	x	x	x	x	x		
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	x	x	x	x	x	x	x	x		

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

### EDUKIAK

#### [DBH CURRICULUMA](#)

1. Ekonomia sistema motak, kapitalismoa eta globalizazio ekonomiko-kulturala, ezaugarriak-ondorioak.

2. Desoreka sozioekonomikoak munduan. Garapena eta azpigarapena, honen adierazleak. Baliabide naturalen kokapena. NBERen papera, funtzionamendua, antolaketa, mugak...

3. Afrikako kontinentearen egoera politiko-ekonomiko orokora: mapa politikoa, inperialismoa eta honen ondorioak.

4. Migrazio fluxuak, honen kausa zein ondorioak eta politika migratzaileak munduan, (europarra eta ipar amerikarra ardatz harturik). Iturrama solidarioa, . Erdialdeko eta Ipar Amerikako mapak.

5. Errefuxiatuen gatazka historikoak. Sahara eta Palestinako kasuak, honen kausak eta ondorioak. Iturrama solidarioa, migratzaile, errefuxiatu eta sahararrekin. Ekialde Hurbileko mapa.

6. Antolamendu politikoa. Estatuak eta nazioak. Antolaketa politiko motak eta estatu demokratikoaren zein ongizate estatuaren ardatzak. Europa eta estatu espainiarreko mapa politikoa.

7. Sektore ekonomikoak; 1,2 eta 3. sektoreen antolaketa egungo mundua globalizatuan. Jarduera ekonomikoen kontrola, banaketa, lokalizazioa eta hauen eragina ingurumenean. Kontsumo eredu alternatiboak. Egungo gatazka askoren iturburu ekonomikoa. Hego Amerika eta Asiako mapa politikoa.

8. Nafarroako eredu eta jarduera ekonomiko nagusienak.

**Iturrama Migratzaileekin** ikastetxeko berrikuntza proiektuetako bat da. Ikasgai honetan honi lotutako hainbat berezko eduki eta errealitate aztertuko dira, hala nola, migrazioaren kausak eta ondorioak, herri saharar eta palestinarren arazoak... Honekin guztiarekin lotuta, hainbat ikerketa eta zeregin gauzatuko dira, taldeetan Covid 19aren egoerak uzten duen bitartean.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK (2. eta 3. DBH-koak)

### [DBH CURRICULUMA](#)

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Saio	Unitateak	Saio	Unitateak	Saio	Unitateak
14	<b>I. Ekonomia sistemak, globalizazioa eta kapitalismoa</b> Europako mapa politikoa	8	<b>IV.Hesiz eta harresiz beteriko mundua (II)</b> (Iturrama migratzaileekin proiektua)	8	<b>VII. Sektore ekonomikoak mundu globalizatuan eta honen inpaktua</b> ingurugiroan zein munduko gatazketan; 3. sektorea <b>Asiako mapa politikoa.</b>
6	<b>II. Desorekaz jositako mundua, Afrikaren begiradatik</b> Afrikako mapa politikoa	6	<b>V. Errefuxiatuen gatazka historikoak. Mendebaldeko Sahara eta Palestina Ekialde Hurbileko mapa</b> (Iturrama migratzaileekin proiektua)	6	<b>VIII. Nafarroako ekonomia eredu eta jarduerak</b>
6	<b>III.Hesiz eta harresiz beteriko mundua (I)</b> (Iturrama migratzaileekin proiektua)	12	<b>VI. Sektore ekonomikoak mundu globalizatuan eta honen inpaktua</b> ingurugiroan zein munduko gatazketan; lehen eta bigarren sektorea <b>Amerikako mapa politikoa.</b>	10	<b>VI. Estatu liberal demokratikoaren oinarri politikoa.</b>

## METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Ikasleen aurre ezagutzak finkatu ostean, irakasleak gaiaren aurkezpena eta sarrera egingen ditu.
- Unitate didaktikoen antolaketak ez dio bete betean liburuari jarraituko. Izan ere, edukien sekuentzia eta ordenan, zenbait gai modu integratuan landuko dira, testu liburuko atal ezberdinak batuz eta material osagarri ezberdinak erabiliz. Honek, liburuaren berezko ordena ez segitzea ekarriko du eta gizarte mintegiak prestaturiko txosten didaktikoak izanen

dira bereziki ardatz, irakaslearen azalpenak eta ikasleen ekarpenekin batera.

- Metodologiari dagokionez, ikasturtean zehar IK/KI programan, hau da, «Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi» txertatutako jarduera, estrategia, talde-dinamika, egitura eta teknikak landuko dira.
- Zenbaitetan ikasleek egunerokotasuneko gaien inguruko ikerketa- lanaren bat edo beste, banaka zein talde kooperatiboetan (Covid-19ren egoerak baimentzen duen neurrian) , eta ahal den neurrian ahozko azalpenek garrantzi handia izanen dute.
- Ikasturtean zehar erabiliko den plataforma classroom izanen da. Plataforma honen bitartez, materiala elkarbanatuko da eta lanak entregatuko dira. Plataforma hau irakasle eta ikasleen arteko komunikazio bidea izanen da. Irakaskuntza eredu ez presentzialera pasako bagina, hau izanen da komunikazio bide bakarra.
- Klaseko dinamika asko baliabide bisualekin egingen dira.
- Erabiliko den metodologiaren helburu nagusienak, ikasleengan pentsamendu kritikoa garatzea izanen da, hauek pentsarazten jarriz, hausnarketak egunerokotasunarekin lotura egitera bideratuz.
- Irteerak ere egingen ditugu, beti ere ikasturtearen martxaren arabera.
- Argi utziko dira zeintzuk izango diren irakasleak erabiliko dituen ebaluazio eta kalifikazio irizpideak.
- **Material didaktikoa:** Santillana argitaletxeak argitaratu duen DBH 3.mailarako Geografia testuliburua. Honez gain, euskarri inportantea izango da ere irakasleak planteatutako materiala: lan txostenak, mapak, bideoak, egunkariak eta aldizkari artikulua, interneteko baliabideak... web gune hau ere erabiliko dugu. <http://giza3dbhiturrama.weebly.com/>. Gainera, material guztia ikasgaiko classroomean eskuragarri egonen da.

## EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

### [DBH CURRICULUMA](#)

#### KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

- Azken nota hiru ebaluazioetan lortutakoaren batz bestekoa izanen da, baldin eta guztietan 5 gutxienez lortzen bada.
- **Kalifikazioaren % 80 azterketek eta ikerketa lanek edo proiektuek osatuko dute.**
  - Kalifikazioa osatzeko eta batz bestekoa egin ahal izateko, azterketa teorikoetan gutxienez 4 atara behar da, bestelakoan hauek berreskuratu beharko dira.
  - Kalifikazioa osatzeko eta ebaluazioko batz bestekoa egin ahal izateko, proiektu edo ikerketa lanetan gutxienez 5 lortu beharko da, bestelakoan hauek berreskuratu beharko dira.
  - Kontinenteetako mapa politikoaren azterketak-kontrolak egingen dira, hauek, notaren %10 balioko dute.
- Kalifikazioaren beste **% 20 ikasleen lana eta jarrerak osatuko dute, (ikasleei jakinaraziko zaien errubriken bitartez kalifikatua).**
  - **% 10:** etxerako zein klaseko lana.
  - **% 10:** gelako jarrera eta portaera, (parte-hartzea, euskararen erabilera, errespetua, puntualtasuna, materialaren erabilera egokia...)

#### ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENKOAK

- **Azterketetan:** edukien eta berezko hiztegiaren zuzentasuna, azalpen argiak, koherentzia azalpenetan, ortografia, heldutasuna, aurkezpen txukunak eta ongi antolatutak, etab.
- **Gainerako lanetan:** edukien zuzentasuna, adostutako epea eta irizpideak betetzea, txukuntasuna, adierazpen koherentea, norberak ekoiztua izatea, taldeko lanetan talde konpromisoak betetzea, lan egiterako orduan kooperatiboki jardutea...
- **Ahozko azalpenetan:** antolaketa, argitasuna, hizkuntza, bat-batekotasuna, gorputz lengoia...
- **Jarrera:** Ikasgelan eta orokorrean ikastetxean gauden guztioi eta material guztiari begirunea erakustea eta parte-hartzaile aritzea. Migratzaile eta errefuxiatuekin eta gainerako proiektuarekiko inplikazioa erakustea. Euskaraz mintzatzea.

**Borobiltzea:**

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

#### **ERREKUPERAZIO SISTEMA**

- **BERRESKURAPENAK KURTSOAN ZEHAR:**. Ebaluazio bat gainditzen ez denean, irakasleak prestatuturiko berreskurapenerako plangintza proposatuko zaio ikasleari, berreskurapenerako azterketa prestatzeko jarraibideak, ariketak... emanik. Berreskurapenaren bitartez gainditutako ikasleak, gehienez ere 5 lortuko du, azterketan nota altuagoa lortuta ere, (salbuespenak albuespen).
- **NAHIKOTASUNA:** nahikotasun azterketa ikasle guztiek egiteko aukera izanen dute, edozein dela eta suspendituriko ebaluazio kopurua. Deialdi honetan, gehienez ere bosteko kalifikazioa eskuratu ahalko da, azterketan nota altuagoa lortuta ere, (salbuespenak albuespen).
- **EZ OHIKO DEIALDIA:** Ikasgaia gainditzeko, azterketa bat egingo da irakasleak emandako jarraibide edo plangintzaren arabera. Horren balioa %100 da. Deialdi honetan, gehienez ere bosteko kalifikazioa eskuratu ahalko da, azterketan nota altuagoa lortuta ere, (salbuespenak salbu).

#### **KANPOKO EBALUAZIOA**

2021/2022 ikasturtean ez da kanpoko ebaluaziorik egin.

**OHARRA:** Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.